

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Jendetza, Inauterietan

Andoainen eta Urnietan, herrikide ugari murgildu zen ospakizunean / 3-9

AIURRI

Mugikorren erabilera, aztergai

Altxa Buruak eta Andoaingo Udalak antolatuta, lau saioko formakuntza-zikloa izango da martxoan. / 12-13



Euskara arloko lankidetzak akordioa berri dute Buruntzaldeko udalek / 10-11



Martxoaren 8a, ospakizunerako eta aldarrikapenerako eguna Andoainen eta Urnietan / 14

Sorabillako Manolo apaiza omendu zuten, aurreko igandean, urte luzez egindako lanagatik / 15

Harri txikia probatzeko deia luzatu du Santa Krutz Jai Batzordeak. Hilaren 11n jarri dute hitzordua / 16



berria
ERREMONT
TXAPELKETA 2025

MARTXOAK 8 | 16:30ETIK AURRERA
LARUNBATA | GALARRETA JAI ALAI
HERNANI

1. PARTIDA:
ALDABE • APEZETXEA vs JABALERA • ZUBIRI

2. PARTIDA:
ANSA II • MARTIRENA vs SEGUROLA • AZPIROZ

3. PARTIDA:
GOIKOETXEA V • GOIKOETXEA VI vs AIESTARAN VII • AIESTARAN VI



SARRERAK



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



IRITZIA

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA DONOSTIA

"Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak!"

Iaz, "Gure bizitzekin negoziarik ez! ¡Haceos cargo ya!" lelopean atera ginen kalera, lehen Greba Feminista Orokorra egin eta hiru hilabetetara. EHko Mugimendu Feminista geroz eta indartsuago eta artikulatuago dagoela erakutsiz, zaintza-sistema publiko eta komunitarioaren alde. Testuingurua ez da askorik aldatu. Desberdinkeriek bere horretan dira. Zapalkuntza-mekanismo forma berriak agertu dira, botere-erlazio forma konplexuak agertu zaizkigu

eta ezin dugu dena dikotomia sinpleetan ulertu.

Eskuin muturraren, faxismoaren eta jarrera erreakzionarioen gorakada ikus dezakegu hainbat esparru eta sektoretan; sare sozialetan, prentsan, kalean, diskurtsoetan, proposamen politikoetan... Ez da soilik urrutiko zerbait, eskuinetik datorrena ez da mugimendu estanko bat.

Ezkerreko sektore batzuetan ikusten ditugu feminismoarekiko kontrakotasuna edota diskurtso arrazisten gorakada. Aipaturiko guztiak

emakume*, trans eta bolleron zapalkuntza eragiten du batez ere, sistema zisheteropatriarkal kapitalista kolonial eta arrazistaren sostengurako ezinbesteko harreman eta ideiak sortzen eta hedatzen dituztelarik. Horregatik diogu, egun, feminismoekin posizionatzeko ausardia aldarrikatzen dugula, norbere erosotasunetik ateratzeko aldarriz gisa eta erresistentzia eta ofentsibarako lubaki gisa.

Feminismoa ezkerreko borroken erdigunera ekarri behar dugu, feminismo antiarrazista,

antikolonialista, antikapitalista eta antiklasista. Feminismoa baita eraldaketarako proposamen integralak egiteko ezinbesteko mugimendua. Hainbat ardatz eta alorretan mekanismo ezberdinen bitartez, askotariko zapalkuntza eta esplotazio egoerak jasan behar ditugu gure gorputz eta lurraldeetan. Horregatik, indarkeria matxista, egun bizi dugun krisi ekosoziala eta sistema arrazista zein koloniala sostengatzen duten migrazio-politikak salatu nahi ditugu.

Martxoaren 8 honetan ere, elkartasuna adierazi nahi diegu erresistentzian dabilzan kideei. Euskal Herriatik besarkada bana eta gure babes osoa; Palestina, Sahara, Kurdistan...

Beraz, har ditzagun kaleak eta segi dezagun aliantzak eraikitzen oldarraldiz beteriko garai hauetan. Elkartu gaitezen, saretu gaitezen, herriz herri. Batu ditzagun indarrak herri eta jendarte feminista bat eraikitzen bidean. Faxismoaren kontra, ausardia eta aliantza feministak!

Zuhaitz-landaketa, Urnietan

Urtero bezala, Zuhaitz Eguna ospatu zuten Urnietan: herriko bi ikastetxeetako LH-ko 5. mailako 60 bat ikasle elkartu ziren Langarda auzoko sarreran, brigadako langileekin batera zuhaitzak landatzeko.





Larunbat arratsaldean, jendetza elkartu zen, Idiazabal kalean. AIURRI

Idiazabal kalea, festazaleen etorbidea

Ohitura bilakatu da, jada, Inauteri eguneko arratsaldeko desfilea. Urtez urte, ez dute sekula hutsik egiten Bosko Anitz txarangako kideek eta haien atzetik doazen mozorrozaleek

Erredakzioa URNIETA

Martxoan indar handiz hasi nahi izan dutenen artean, bada Inauteriak ilusioz eta gogo bereziz bizitzen dituenik: Urnietan, mozorrozale asko dagoela ikusi zen joan den larunbateko Inauterien festan. Arratsaldeko 17:00etan egin zuten hitzordua inauterizaleek San Juan plazan, eta, Bosko Anitz txarangaren gidaritzapean,

herriari itzulia eman zioten, desfilean. Txaranga da Urnietan jaiaren gidari, haren atzetik doaz eta dozenaka herrikide San Juan plazatik oinezkoentzat itxita dagoen Idiazabal kalera.

Musika eta dantza, nagusi

Festazaleen etorbidea bilakatu zen Idiazabal, larunbat arratsaldean, pelikuletako eta telesail-

tako pertsonaia ezagunenez bete baitzen herriko kale nagusia. Hori horrela, aurrera eta atzera aritu ziren bizilagunak, banaka, binaka edota talde handian, beren mozorroekin kantuan eta dantzan. Haietako batzuk koreografia eta guzti landu zuten. Arratsaldeko ekitaldiak amaituta, Abiba Disko Jaiak girotu zuen afalordua eta gaua, Idiazabal kalean.



Bosko Anitz txarangaren atzetik ibili zen festazale ugari. AIURRI



Pirata kuadrilla, Idiazabal kalean, larunbat arratsaldean. AIURRI



Inoiz hutsik egiten ez duen kuadrilla, Galiako pertsonaia ezagunenez mozorrotuta. AIURRI



Arrosa kolorea nagusi, Barberien mozorroan. AIURRI



Erresuma Batuko Peacky Blinders gaizkileak. AIURRI



Torrente eta bere lagunak. AIURRI

Egun osoko ospakizuna, San Juan plazatik abiatuta

Pelikulak eta telesailak. Hori izan da Jai Batzordeak aurtengo Inauerietarako ipinitako abiapuntua. Bada, nork bere armairuko mozorroetan arakatuta, herriko Inauteri festen zaletasuna indartsu dagoela erakutsi zuten urnietarrek

Erredakzioa URNIETA

Eguraldia lagun, ondo baino hobeto erantzun zioten herriko inauterizaleek Jai Batzordearen erronkari. Pantaila handiko izarrez bete zen herria, larunbat eguerditik aurrera: Maite Kutuna, Wazemank, UP, Doremiren magia, Breaking Bad, Karibeko piratak... Hezur haragizko pertsonailetatik hasi eta marazki bizidun ezagunetara bitarte, originaltasuna izan zen nagusi Urnietako mozorrozaleen artean.

San Juan plazan egin zuten lehen geldialdia herritarrek, Poxta Zaharrek antolatutako poteoan. Hala, mozorro-festari ekiteko gogorik bazela erakutsi zuten, jendez lepo baitzegoen plaza. Inguruko herrietatik etorritako kuadrillak ere baziren bertan, Urnietako sagardotegiak bete egiten baitira Inauteri saioan.

Ondoren, Plazio Muxikara plazarantz jo zuten gazteek, Poxta Zaharrek antolautako herri bazkarirantz, hain justu.

Eguneko gaiarekin lotuta, sketch-entzako tarteak utzi zuten kuadrillen elkarteak eta Urnietako Gaztetxearen egoera hizpide izan zuten herritar talde batek, azaroaren azken ostegunean bizi izan zutena gogoan hartzeko asmoz.

Iluntzea biribiltzeko, mariatxiz jantzita etorri ziren Bixkor txarangako kideak, eta, Plazio Muxika plazatik abiatuta, hainbat geldialdi egin zituzten herrian barrena, gaueko ordu txikietako festari bide emateko.



Urnietako
udala



Goizean goizetik izan ziren ninja dortokak parranda-giroan. AIURRI



Shaun arditoxa eta bere lagunak Urnietara gerturatu ziren, festaz gozatzeko. AIURRI



Emozioz beteriko eguna izan zuten batzuk, "Inside out" pelikulaz mozorrotuta. AIURRI



Jostailuen mundura egin zuten jauzi Etxeberriko bizilagunek. AIURRI



Mozorrozale gazteak, elkarrekin, Poxta Zaharrek antolaturiko poteoan. AIURRI



Txokolate-fabrikari atsedean hartuta, herrira gerturatu ziren Willi Wonka eta umpa-lumpak. AIURRI

Gazteek antolaturiko bazkaria

Egordia epeltzen lagundu zuen eguzkiak larunbatean, Poxta Zaharrek antolatutako herri bazkarian. Plazido Muxika plazan egin zuten hitzordua eta Inauteri festan bete-betean murgiltzeko parada izan zuten.



AIURRI



AIURRI



Aita Larramediko ikasleak, Goikoplazan. AIURRI

Ikasleen festa handia da Ostegun Gizena

Hiru ikastetxeetako ikasleek kalejira koloretsua egin zuten, Goikoplazako emanaldi nagusia baino lehen

Erredakzioa ANDOAIN

Inauteri festa larunbata bada ere, aurreko egunetan ez dira gutxi mozorrotzeko hautua hartzen duten haur eta gaztetxoak. Ostegun Gizenean ikastetxean hasi ohi da festa, kalez kale eta

Goikoplazan amaitzen dena. Aurtengoan ere, hiru ikastetxeetako ikasleek kalejira koloretsua egin zuten. Ostiral arratsaldean, berriro ere, mozorro ugari ikus zitezkeen kaleetan. Bereziki, haurren artean.



La Salle Berrozpeko ikasleak, Kaleberrian. AIURRI



Ondarreta ikastetxeko ikasleak, Kale Nagusian. AIURRI



Goikoplaza, larunbat iluntzean, jendez gainezka. AIURRI

Kolore eta doinu-festa, ilunabarrean, Goikoplazan

Egunez, udalerriko hainbat tokitan. Eta, iluntzean, guzti-guztiak Goikoplazan elkartzen dira. Ederra izaten da bertan sortzen den giroa, jendez gainezka izaten baita. Larunbat iluntzean kolorez eta doinuz betetzen da ingurua



Festarekin bat egiten duten herrikideak askotxo dira. Haiei begira, espaloietan, ikusle ugari elkartzen da. AIURRI



Goikoplaza mozorrotuen helmuga izaten da, larunbat iluntzean. AIURRI



Gure Zirkuaren andoaindar bertsioak txalo zaparrada jaso zuen. AIURRI



Inauterietan barrakak aurki zitezkeen mozorro batean baino gehiagotan. AIURRI



Lupercales konpartsako kideak igande eguerdian. AIURRI

Igandean jarraipena izan zuen Inauteriak Andoaingo kaleetan

Ilunabarrean, Barbara Rey Emerittoa izenarekin bataiatu zuten sardina erre zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainen Inauteria igandera bitarte luzatzeko saiakerarekin aurrera doaz. Azken urteotan, gainera, bi hitzordu nagusi antolatu dituzte. Lehena, bazkaria. Goikoplazako olanapea aukera

bikaina da jaiari murgilduta daudenak elkartzeko. Bigarrena, sardinaren segizioa eta erreketeta. Iluntzean da eta hitzaldi eta guzti antolatzen dute. Eguna luzatzeko aukera ematen du, ospakizuna asteburu osora luzatuz.



Sardinaren erreketeta eta ehorzketa, igande gauean, Goikoplazan. AIURRI



andoaINDARRA
euskaraz



Txitibar plazatik abiatuta, jendetzak hartu zuen kalea inauteriaz gozatzeko. AIURRI



Mundiala da larunbata

Urteko hitzordu parte-hartzaileenakoa da Inauteria. Ikustea besterik ez dago desfilean parte hartzen duen jendetza. Aurtengoan ere ospakizun ederra izan da dozenaka andoaindarrentzat. Jaia iganderaino luzatzeko saiakerak, gainera, aurrera darrai



Lebiton konpartsa, ostiraleko protagonista nagusia, haur eta gaztetxoentzat. AIURRI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA





Buruntzaldeko sei udalerrietako alkate eta Euskara zinegotziek nahiz teknikariek elkarrekin lan egiten jarraitzeko konpromisoa eta gogoia irudikatu dituzte. TXINTXARRI

Hitzarmen berria, osoagoa eta sendoagoa

Euskara arloko lankidetzak akordioa berri dute Buruntzaldeko sei udalek, lau urterako. Orain arte jorrotutakoaz gain erronka berri batzuei helduko diete, hori bai, hasierako helburu berberarekin: euskararen normalizaziorako egitasmoak elkarren artean bideratzea

Txintxarri ESKUALDEA

Buruntzaldean errotuta dagoen eta dagoeneko fruitu oparoak eman dituen lankidetzak hitzarmena berri dute eskualdeko sei udalerrietako ordezkariak. Hernaniko udaletxeko pleno aretoa bertaratu ziren Astigarragako alkate Xabier Urdangarin, Hernaniko alkate Xabier Lertxundi, Usurbilgo alkate Agurtzane Solabarrieta, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdivia, Andoaingo Udaleko Euskara zinegotzi Marta Lasa eta Urnieta Udaleko Sustapen zinegotzi Ana Pozas. Gauzak horrela, euskara arloan lankidetzan segiko dute, orain arte landutako guztiaz gain erronka berriei helduta, hori bai, orain arteko helburuari eutsita: euskararen normalizaziorako egitasmoak elkarren artean bideratzea. Lau urterako izango den elkarlan egitasmoa

2002an hasitako lanaren segida izango dela nabarmendu zuten ordezkariak.

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilek errealtate linguistiko desberdinak dituzte baina antzeko egitasmoak martxan ditu hainbat arlotan, nork bere bitartekoak erabiliz prestatuak. Ekimen horiek eskualdera zabaldua "aberatsagoak eta sendoagoak" izango direla sinetsita daude: "Giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak hobeto erabiltzearen poderioz landuagoak izango direlako eta, ondorioz, baita eraginkorragoak eta errentagarriagoak ere".

Egindakoa eta egiteke dagoena

Hernaniko eta Lasarte-Oriako Euskara zinegotziek, Axier Mingok eta Estitxu Alkorkak hartu zuten hitza ondoren, elkarlan

hitzarmenaren gakoak azaltzeko. "Merkataritza edota autoeskolen eremua euskalduntzen aritu gara eta familia transmisioari ere heldu diogu, esparru hori oso garrantzitsua delako euskara ama hizkuntza gisa transmititzen jarraitzeko. Nire iritzia apalean, oso-oso lan txukuna egin dugu orain arte", azpimarratu zuen Mingok. Dagoeneko ondu eta zabalduak izan diren egitasmoen artean, Buruntzaldeko kultura agendarena nabarmendu zuen: "Ikustaldi ugari jasotzen ditu, herritar askok begiratzen dute eta euskaraz kontsumitzeko oso atari interesgarria da". Alkorkari hitza eman aurretik, nabarmendu zuen etorkizuneko lan ildoak Eusko Jaurlaritzak aurkeztu berri duen AROA Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko marko estrategikoak zehazten dituen zazpi

ardatzen gainean aurrera eramango dituztela.

Alkorkak berak eman zituen etorkizuneko erronkei buruzko zertzelada batzuk. Azpimarratu zuen, adibidez, lan mundua: "Gure gazteek euskaraz egiten dituzte ikasketak, eta, logikoki, esparru horretara egingo duten jauziak ere hizkuntza horretan izan behar du". Eskualdeko udalek hartu dute konpromisoa beste esparru batzuetan ere eragiteko, hala nola adin tarte horretako ahozko erabileran: "Pisu guztia beraiengan jartzen dugu eta ez da justua, baina euskara-eskola binomioa hautsi eta gustuko dituzten aisialdi egitasmoetan ere eragin behar dugu, aukera gehiago eman eta euskararekiko lotura positibo horiek sendotzeko". Horiez gain, etorri berriak diren harrera eta Lanbide Heziketa aipatu zituen zinegotziak.

Bestalde, Buruntzaldean abian jarri duten lankidetzak goraipatu zuen: "Euskararen sustapenean eragiteko aukera ematen digu".



"Taldean arituta, urrunago iristen gara guztiok"

AXIER MINGO HERNANIKO EUSKARA ZINEGOTZIA

"Helburua da euskara normalizatzeko egitasmoak elkarren artean garatzen jarraitzea, taldean urrunago iristen garelako. Eskualdean esparru asko jorratu ditugu, eta, horietatik, nabarmendu nahi dut Buruntzaldeko kultura agenda: aisialdia euskaraz kontsumitzeko oso atari interesgarria da, eskualdeko udalerrietan zer antolatzen duten kontsultatu eta ekimenetan parte hartzeko, herri batetik bestera jauzi eginda".



"Aintzindariak gara lankidetzak eredu honetan"

ESTITXU ALKORTA LASARTE-ORIAKO EUSKARA ZINEGOTZIA

"Goraipatu egin nahi dut lankidetzak mota hau; aintzindariak gara eredu honetan. Aurrera begira erronkak ditugu eta Eusko Jaurlaritzaren AROA marko estrategikoak zehazten dituen zazpi ardatzen baita jarraituko dugu lanean. Izango ditugun desfioen artean lan munduarena azpimarratuko nuke. Gure gazteek euskaraz egiten dituzte ikasketak, eta, logikoki, esparru horretarako jauziak ere hizkuntza horretan izan behar du".



Soziolinguistikoki anitza den eskualdeko herriak, elkarrekin eragiten



Txintzarri ESKUALDEA

Ezaugarri askotako sei udalerrik osatzen dute gure eskualdea: Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. Bakoitzak bere berezitasunak ditu eta anitzak dira, besteak beste, soziolinguistikoki, baina herri horiek guztiak badituzte gauzak komunean eta horiek bateratzen ditu Buruntzaldea Euskaraz atari digital berriak, 2002an hasitako lankidetzaren fruitu mamitsu eta ikusgarrienetako batek. Webgune horretan arakatzeko aukera izango dute jakiteko zer antolatu duten udalerririk horietako bakoitzean, non izango den, zer ordutan hasiko den eta nork aurrera eramango duen. Izan ere, sei herriak desberdinak izanagatik, bertan bizi garenok joera dugu ingurukoetara joan eta bertako euskara eskaintza aberatsaz gozatzeko.

Dagoeneko egindakoa ahaztu gabe, aurrera begira jarri dira sei udalerririk horiek eta lau urterako izango den lankidetzaren hitzarmena berri dute. Hemen dituzue akordioaren gakoetako batzuk:

Hitzarmen berria, helburu berbera

- Buruntzaldea eskualdeko Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalen helburuetako bat da, besteak beste, udalerririk horietan euskararen normalizaziorako zenbait egitasmo elkarren artean bideratzea.

Egitasmo aberatsagoak

- Egitasmoak eskualde mailara zabaldua aberatsagoak eta sendoagoak izango dira, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak hobeto erabiltzearen poderioz landuagoak izango direlako, eta, ondorioz, baita eraginkorragoak eta errentagarriagoak ere.

Urrunago iritsi eta eragiteko

- Badaude, bestalde, udalerririk gairik ere, udal batek bakarrik eragin ezin dituen arlo edota sektoreak. Horregatik, ekimen horiek eskualdeko izaera dutenez, maila horretako esku-hartzea bideratuko dute udalek, hitzarmen honen bitartez.

Lehentasunezko jarduerak-esparruak

- Hizkuntza normalizazioaren ikuspegitik sei udalerririk lehentasunezkoak izan daitezkeen jarduerak-esparruetan jardungo dute: familia eta irakaskuntza, kirola, aisialdia, merkataritza, euskararen erabilera, lan mundua, etorri berrien harrera...

Lau urterako hitzarmena

- Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, 2025eko otsailaren 28tik kontakten hasita. Sei udalerririk ordezkarietako ilusioz eta gogoz izenpetu dute akordioa, hitzarmen berria osoa eta sendoagoa delako. Lanean jarraitzeko irrikaz daude.

Astigarragako Udala

Hernaniko Udala

Usurbilgo Udala

Lasarte-Oriako Udala

Andoaingo Udala

Urnietako Udala



<https://euskara.buruntzaldea.eus/>

“Mugikorrak sakon aztertuko ditugu, bertan zer dagoen ikusteko”

TELMO LAZKANO PSIKOLOGOA

Altxa Buruak antolatuta, eta Udalaren lankidetzarekin, jardunaldiak egingo dira Basteron, datozen egunetan, "Zentzuzko erabilera eta osasuna saretzen" izenburupean

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Eskuko telefonoaren erabilera-ekin kezkatuta, Altxa Burua mugimendua sortu zen, guraso talde baten eskutik. Sorreratik, bere balio zein helburuetan,

haur eta nerabeengan lehen mugikorra izateko adina atzeratzeko xedea dute. Ez hori bakarrik, heziketan sakondu nahi dute, besteak beste, ikasketxeak mugikorrik gabeko

arnasgune bilakatuz eta gurasoak bidelagun zein eredu izanik, nerabeengan helduen ekin-tzek hitzek baino oihartzun handiagoa eduki ohi dute-eta, askotan.

Zerekin egingo dute topo saio horietara bertaraten direnek?

Programaren helburua ulertze-ko, lehenik, jatorria ezagutzea komeni. Bi errealitateri erantzuna ematen saiatuko gara: batetik, "adikzio" hitzarekin defini dezakegu mugikorrarekin dugun harremana; bestetik, hazkundera izan dute adin txiki-koen artean buru-gaixotasunak. Bi kasu horiek eskutik helduta doaz, nahi baino neurri handi-ago batean. Bada, "Zentzuzko erabilera eta osasuna saretzen" (ZEOS) programa horri guztiari argia ematera dator. Ez dugu diagnostikoan gelditu nahi. Orduan, askotariko abiapuntuak eta baliabideak azalduko dira, familia gisa zein herri gisa bi errealitatei erantzuteko.

Testuinguruan jarrita, lau saio izango dira, bi eremu ezberdinetan banatuta: konpetentzia psikoemozionalari dagokiona eta konpetentzia digitalari da-
gokiona. Mugikorrak sakon aztertuko ditugu, bertan zer dagoen ikusteko. Ezagutza praktikan jartzeko aukera ere izango da. Maitane Ormazabalekin, zabalduenen dauden buru-gai-

xotasunen gaineko ezagutza eraikiko dute herritarrek, bai eta horri guztiari elkarrekin erantzuteko gakoak berri izan ere.

Nahiko ezaguna da, jada, Altxa Burua plataforma. Hasieratik gaurdaino, aldaketarik, eguneraketarik izan al duzue, ekimenaren definizioari edota lanketari dagokionez? Oinarria hasierako berbera da eta bidean apustu berri baten alde egiten ari gara: hezkuntzaren digitalizazio osasuntsu, libre eta ebidentzietan oinarritutakoaren alde egitea. Altxa Buruaren aterkipean ez daude, soilik, beren haurrei mugikorra eman ez dieten familiak, baita eman dietenak ere. Are gehiago, azken horiek dira laguntza behar dutenak, batez ere: jada, eman dutenak eta horrekin harreman osasuntsua eraiki nahi dutenak. **Orain aste batzuk egin zen Azpeitiko topaketa, parte-hartze handiarekin.**

Asko ari da zabaltzen egitasmoa: kanpaina bat jarri genuen martxan eta 20.000 familia atxikitu ziren Altxa Buruaren helburuetara. Uste baino oihartzun handiagoa dugu.

SAHARAREN aldeko
BERTSO SAIOA

Aitor Sarriegi
Eneritz Artetxe
Oihana Iguaran
Aitor Mendiluze
Andoni Rekondo
Nerea Elustondo

Gai jartzailea:
Maddi Etxeberria

Andoaingo
Bastero Kulturgunean
Martxoaren 9an
12:00etan

Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats
8.00€

Antolatzaileak:

Laguntzaileak:



Telmo Lazkano hizlari ariko da Andoainen, datozen egunotan. ZE05

Gurasoak, irakasleak eta ikasleak edo nerabeak dira zuen programaren ardatzak. Gurasoei zuzendutakoak al dira Basteroko jardunaldiak? Hori da, bai. Guk lanketa beti hasten dugu etxean alegia, gurasoekin. Zergatik? Familia, eskola eta nerabei dagokionez,

ekuazio honetan, gurasoek dutelako erantzukizun handiena. Horregatik, nire ustez, ahalduntze psikoemotionala zein digitala, lehendabizi, gurasoei eskaini behar zaiela. Gero, irakasleei zuzenduta dago bigarren pausoa, lanketa egin dezaten.

Azken jauzia ikasleei edo nerabeei dagokie.

Patata beroa erori al zaie irakasleei? Etxean kontrolatu ez den erantzukizuna erori al zaie gainean?

Jendartearen isla da hezkuntza, eta jendartearen lagin bat dago ikasgeletan. Orduan, ezinbestean, gure inguruan gertatzen den gauza orok izango du isla edo eragina, eskola-esparruan. Batak besteari pilota botatzen dion bitartean, nor da kaltetua? Haurra. Guztiok nahi dugu gure umentzat onena, hortaz, elkarrekin jardutea da onena. Gaia ikasgeletara iritsi da eta kudeatu beharrekoa da, erantzukizunak garbi izanda: lehenengo ardura etxean eduki behar da eta ondo legoke eskoletatik laguntza bermatzea, ahal den neurrian. Hala ere, aktore asko ditugu, ez baita, soilik, familiaren, eskolaren zein nerabeen kontua. Baditugu instituzioak, baina horretaz guztiaz elikatzen den teknologia-industria ere. Bi horiek ere badute erantzukizunik, azken finean, egun, bizi ditugun arazoak teknologia-industriak diseinatutako produktuen ondorio dira.

Ez da aterki beraren pean sartu behar teknologia guztia: bada gure zerbitzura dagoen teknologiarik, baina baita gu bere zerbitzura nahi gaituenik ere. Azken horrek ekarri du zeresan handiena, hori izan baita egungo egoerara eraman gaituena. Teknologia-industria ez da autoerregulatuko, bere negozio-eredua arretaren ekonomian oinarritzen delako eta diseinu adiktiboak sortzea duelako helburu. Horren aurrean, instituzioak behar ditugu, erabiltzaileak babesteko, beste arlo batzuetan egiten den bezala. Hortaz, ikuspegi zabala goa izan beharko genuke, norbanakoari erantzukizuna kendu gabe, ardura kolektibizatzeko.

Bistakoa da arazo baten aurrean gaudela. Osasun publikoari dagokion arazoa dela aipatu duzu.

Amerikako Estatu Batuetan 41 estatu federalek auzipetu dute beraien enpresa garrantzitsuena: Meta (Facebook). Tik Tok ere 15 estatuk salatu dute. Osasun publikoko arazo baten aurrean gaudela diodanean, entitate zientifikoek eta, orokorrean, komunitate akademikoak hala adierazten dutelako da.

Lau saio Andoainen

Martxoak 17, astelehena:

Mugikorren auziaren formazio integrala. 17:30-19:30, Bastero.

Martxoak 18, asteartea:

Osasun mentalean barrena. 17:30-19:30, Bastero.


Martxoak 24, astelehena:

Nerabezeroan barrena: beldurrak, balioak, autoestimua eta identitate eraikieraren garrantzia. 17:30-19:30, Bastero.

Martxoak 25, asteartea:

Sare sozialen arrisku eta erabilera formazioa. 16:00-18:00, Urigain.

Informazio gehiago:



Nico, Donostia
24/12/4 Donostia Ospitalea

Gipuzkoa egunero sortzen da.

Pertsonen ongizate integral handieneko lurraldea izatea da gure asmoa.

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Bizi.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

BERTSOLARITZA

ANDOAIN Bertso saioa

Hurria-Sahara taldeak, Punttukarekin elkarlanean, antolatuta. Bertsolariak: Aitor Sarriegi, Eneritz Artetxe, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Andoni Rekondo eta Nerea Elustondo.

Martxoak 9, igandea.
12:00, Bastero. 8 euro.

URNIETA Bertso-afaria

Eli Pagola eta Unai Gaztelumendi, Aiurrik eta Gaztetxeak antolaturiko saioan. Txartelak salgai Urrietako Kantoin eta Matxon eta Aiurri.

Martxoak 21, ostirala.
Altuna Sagardotegia.

HITZALDIA

ANDOAIN Eolikoak aztergai

Hizlariak: Eskeltzu Bizirik eta Urumeako Mendiak Bizirik.

Martxoak 13, osteguna.
19:00, Euskalduna MT.

ANTZERKIA

ANDOAIN Vaiven konpainia

"El patio de las moreras".

Martxoak 14, ostirala.
19:30, Bastero. 6 euro.

BARRIKOTEA

ANDOAIN Bazkaria

Bertako eta Extremadurako jakiez osaturikoa: Extremadurako hestekien dastaketa, txorizoa sagardoarekin, kroketak, txuleta eta Extremadurako gozoen dastaketa, sagardoa, ardoa eta kafea. Helduen menua, 30 euro. Haurrena, 10.

Martxoak 15, larunbata.
14:30, Hogar Extremeño elkarte.

IKUSKIZUNA

URNIETA Haur ikuskizuna

Gari, mutiko txoro bat, lagunekin haserretu eta bakarrik abiatuko da Anbotora. Mariren haizuloan sartu eta harri magiko bat aurkituko du.

Martxoak 16, igandea.
17:30, Sarobe.



Emakumeen afaria, iaz. AIURRI

ANDOAIN, URNIETA Martxoak 8ari loturiko hitzorduak**Martxoak 6, osteguna:**

18:00 ANDOAIN: Solasaldia Bastero Kulturgunean: "Emakumeak Axeri Dantzan 25 urte".

19:00 ANDOAIN: Bertso trikipoteo transfeminista, Plaza Moretik abiatuta. Bertsolariak: Aissa Intxausti eta Maddi Aiestaran. Gai-jartzailea: Uxue Alkorta. Trikitilaria: Araitz Agirre. Panderoa: Izaro San Buenaventura.

Martxoak 7, ostirala:

19:30 ANDOAIN: Verde Prato eta Anari, Bastero Kulturgunean.

20:45 ANDOAIN: Emakumeen afaria, Allurraldeko olanan.

Martxoak 8, larunbata:

11:30 URNIETA: Elkarretaraztea, San Juan plazan.

12:00 ANDOAIN: Emakumeen Irradaka Goikoplazan.

12:30 ANDOAIN: Manifestazioa Goikoplatatik hasita.

14:00 ANDOAIN: Bazkaria eta OKA feminista Zumea plazan, Asanbladak antolatuta.

14:30 ANDOAIN: Emakumeen bazkaria Oianumen, Udalak antolatuta.

Martxoak 9, igandea:

19:00 URNIETA: "Puto amor. ¿Como amamos las mujeres?" Saroben.


**HAUR IKUSKIZUNA****Anbotoko Mari**

AiurriKIDE batek 4 sarrera eskuratuko ditu

Irabazlea
Belen Izagirre Garmendia

Zorionak!

ZINEMA


**ANDOAIN****BASTERO**

Maria Callas
Martxoak 8, larunbata. 19:30.
Martxoak 9, igandea. 19:30.
Martxoak 10, astel. 17:00, 19:30.

Polican

Martxoak 8, larunbata. 17:00.
Martxoak 9, igandea. 17:00.

El secreto del orfebre
Martxoak 15-17.



SINOPSIS


Maria Callas

Zuzendaria: Pablo Larrain. **Aktoreak:** Angelina Jolie, Pierfrancesco Favino, Alba Rohrwacher, Haluk Bilginer, Kodi Smit-McPhee, Valeria Golino, Stephen Ashfield...

Herrialdea: AEB. **Urtea:** 2025. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama. **Iraupena:** 122 m.

Maria Callasen atzera begirakoa

Munduko opera-abeslari garrantzitsuenaren bizitza pantailara eramán dute. Angenila Jolie aktoreak bete du rola eta, estreinaldiaz geroztik, kritika on ugari jaso ditu bere interpretazioak. Kantariaren bizitza iskanbiltsua, ederra eta tragikoa izan omen zen. Filmean, hirurogeita hamarrek hamarkadan Parisen emandako azken egunak biziberritu dituzte.



MARTXOAK 7-8

OUTLET KALEAN

Martxoak 7, ostirala
GORA KALETKIKI TKARANGA
17:30 - 19:30

ANDOAINGO DENDAK BETI ZUEKIN

S2 SALKIN
kortakak bertan

KOMUNITATEA

SORABILLA AUZO ELKARTEA ANDOAIN

Sorabillako “Manolo apaiza”



Sorabillako auzokideek omenaldi goxoa egin zioten Manuel Oyarzabal, Sorabillako apaizari. Manuel Oyarzabal Aginagalde, Pirinioetako Aran bailarako Les herrian jaioa, gazterik etorri zen Irunera bere familiarekin. Apaiz izan nahi eta mutil bizkorra zenez, Lovainako Unibertsitatean Filosofia ikasteko beka lortu zuen. Filosofiako irakasle izan da Manolo urte askotan. Apaiz bezala, Azpeitiko Mantxinbentan izan zen apaiz lehenbizi, baina urterik gehienak Andoainen egin ditu, goiko parrokiaren hogeita urte eta gehiagorik eta azken 30 urteak Sorabillako parrokiaren. Gizon patxadatsua, entzuten dakiena eta gertukoia da Manolo denontzat. Bere izaera abegikor eta auzoko bizitzan sakon txertatua dagoen apaizari omenaldia egin diote Sorabillan eta Xabier Lakak landutako artelana oparitu, elkarrekiko esku zabaltasunaren adierazgarri.

DEIALDIA

OSASUN ETXEA ANDOAIN

Osasun Etxeak antolatutako saioak



Erorketak saihesteko tailerra
Andoaingo Osasun etxean pertsona helduetan erorketak nola saihestu ikasiko da. Hizlariak: osasun zentroko erizaina, udaleko gizarte langilea eta Beti On-eko arduraduna. Martxoaren 20an izango da, goizeko 11:00tan hasi eta 13:00ak arte. Bastero Kulturgunean izango da eta ez da aurretik izena eman behar.

Erretzeari uzteko tailerra
Erretzeari uzteko taldea osatu nahi dute Tolosako Osasun Etxean. Bost saio izango dira osasun etxeko 3. solairuko taldeko jardueren gelan. Interesatuak izena eman behar du Andoaingo Osasun Etxean, martxoaren 12a baino lehen. Orduetgia 13:15etik 14:45era izango da. Saioak datozen egunetan izango dira: Martxoak 18, 25 eta apirilak 1, 8 eta 29.

MERKATU TXIKIA

TXIMINIAREN GARBIKETA
Su baju eta ekonomikoen garbiketaren. Julen: 610 628 848

Emakumeentzako txirrinda. 60 euro. Harremanetarako: Pili: 610 953 258.

Bi ohe artikulatu salgai, koltxoi eta somierrak barne. Berri-berriak. 664 462 517.

ZEINU HIZKUNTZA
Zeinu hizkuntza praktikatzeko pertsonen bila nabil. Gorrak badira hobeto! 650 341 108.

SALMENTAK
Edariak hozteko hozkailu txikia. Neurriak: zabalera 0,48, sakonera 0,44 eta altuera 0,63. Prezioa 55 euro. Pili: 610 953 258.

MERKATU TXIKIAN IRAGARRI NAHI DUZU?
Bidali mezu bat diseinua@aiurri.eus helbidera edota whatsapppe: 619 163 537

ODOL-EMAILEAK

Hurrengo hitzordua, Andoainen
Andoainen odol-emaile berrien premian dira eta, gaurkoz, herritarrek erantzuten ari dira. Izan ere, otsailean, 48 odol emaile inguratu ziren eta horietako grentzat lehen aldia izan zen. **Martxoak 10, astelehena. 16:30-20:15, Osasun Etxea.**

M8
Emakumeen Nazioarteko Eguna

ASKATASUNA

ERRESPETUA

hezkuntza

Demokrazia

eskubideak

BERDINTASUNA

ONGIZATEA

AUKERAK

ELKARTASUNA

sareak

ahalduntzea

#Ni Feminista Naiz

Feminismoa zurekin bat

EMAKUNDE

EUSKO JAURLARITZA GOBERNO VASCO

araba álava
foru aldundia diputación foral

Bizkaia
foru aldundia diputación foral

GIPUZKOA
Ekin. Zaindu. Biz.

EUDEL
EUSKARABO IRATZEA ELKARTEA ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



Zumeatarra taldeko partaideak, Garaiko Errelebo mixtoen Super Sprint Duatloian. FESTAK

Andoaingo Lehen Duatloia, martxoaren 15ean

Sprint modalitateko lasterketa, helduentzat; Super Sprint lasterketa kadeteentzat. Izen ematea zabalik dago

Eredakzioa ANDOAIN

Lehen duatloia Zumeatarra Triatloi Taldeak antolatu du, eta oraindik izen-ematea zabalik dago rockthesport.com webgunean. Andoaingo federatu nahiz federatu gabekoentzat izango da, helduen eta kadete mailatan bereiztuta. Kadete mailakoa, zehazki, 2010 eta 2011 urteetan jaiotakoentzat da. Helduena sprint modalitateko lasterketa izango da. Hots, 5 kilometro korrika, 20 kilometro bizikleta gainean eta 2,5 kilometro korrika. Proba arratsaldeko 16:00tan hasiko da.

Koldo Velasco zuzendariak ibilbidearen deskribapena egin zuen: "Partaideak, lehenik eta behin, 5 kilometro egin behar ditu korrika Goikoplaza eta Txitibar plaza artean. Ibilbidean Kale Nagusia eta Kaleberria zeharkatuko ditu. Lehen proba amaituta, Goikoplazan bizikleta hartu eta Olagain aldetik Otietara joango dira. Ibilbide osoa errepidean izango da. Ibilbide hori 10 kilometrokoa da, beraz, bi itzuli egin beharko dituzte. Eta, amaitzeko, 2,5 KM-ko korrika saioa egingo dute Goikoplazan hasi eta bertan bukatuz".

Kopako lehen partidaren garaipena lortu zuen Urnietak

Igoera faserako sailkatzeko zorian izan eta gero, Gorengo taldeak garaipenarekin ekin diot Kopari: Urnieta 3-1 Zarautz.

Euskaldunak garaipenaren bidea berreskuratu du

Gorengo mailan, 2. postuari eusten diote. Ostiral mehean garaipena eskuratu zuten, Ubitartean: Euskalduna 2-1 Touring B.

Eskien mantentze-ikastaroa, Zanpatuzen eskutik

Neguko kirola maite dutenentzat tailerra antolatu du Urnietako Zanpatuz mendi-elkartek: eskien mantentze-ikastaroa emanango du Mikel Goñik martxoaren 18an, Lekaio kultur etxean. Arratsaldeko 18:00etan hasita, hiru orduko hitzordua izango da. Antolatzaileek adierazi du-

tenez, oinarrizko edukiak jorratuko dira bertan: materialaren aurkezpena, ertzak zorrozteia, zoletako zuloak estaltzea, argizaria ematea, fijazioen mantentzea... Jada, irekita dago izen-ematea, martxoaren 14ra bitarte: Kantoitabernan egin behar da, 10 euro ordainduta. Bazkideen kasuan, 5 euro ordaindu beharko dituzte. Orotara, hamar lagunentzako tokia izango da.

Harri txikia probatzeko deialdia

Santa Krutz jaietan Harri Txikia txapelketaren edizio berria egingo dute eta antolatzaileek deialdiaren berri eman dute: probatu nahi duenak aukera izango du martxoaren 10ean, astelehenarekin. Izena eman nahi duenak telefono zenbaki honetara deitu behar du: 677 15 34 22.



AIURRI

BERTSO AFARIA URNIETAN



ELI
PAGOLA



UNAI
GAZTELUMENDI

MARTXOAK 21 · 20:30 · ALTUNA SAGARDOTEGIA

MENUA: TXORIZOIA, BAKAILAO-TORTILA, TXULETA ETA POSTREA

35€*

TXARTELAK SALGAI: MATXO TABERNA, KANTOI TABERNA, AIURRI.
EROSTEKO AZKEN EGUNA: MARTXOAK 18, ASTEARTEA

*BERTSOLARIAK AIURRIREN ESKUTIK